



Gaur, txirrindulari igoera izango da Altzoko jaien barruan

HASIERA ▶ Jende ugari bildu zen jaiei ongietorria emateko; gaur, Kauta, Kaotiko eta Trikizio taldeak ▶ 5



Atzo hasi ziren Altzoko saninazioa jaiak suziria botaz; jende asko elkartu zen plazan. OLAIJA ESKITXABEL



GARAZI AZKUE

Egitarau betea Santio jaiei amaiera emateko

VILLABONA ▶ Atzo koadrilen arteko bazkaria izan zen; gaur, Hazparne-Villabona errebotte partidua eta SAREN kontzertua ▶ 4

ABUZTUAN OPORRAK HARTUKO DITU TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK

Urtero bezala, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO langileek oporrak hartuko dituzte abuztuan. Beraz, hila-bete osoan zehar ez da eskualdeko euskarazko egunkaririk izango. Irailean hasiko dira berriro lanean eskualdeko informazioa biltzeko eta zuenganatzeko. HITZA eskuarte izango duzue berriro irailaren 2tik aurrera. Bitarte horretan, ondo pasatu denek egun hauek.

Km 0 hemen dago



VOLVO S40 1.9 Diesel

Km 0 eta enpresa ▶ 115 CV
19.800 € (ik. (3.295.000 PZTA)
PREZIOA **23.820 €** (3.960.000 PZTA)



VOLVO V40 1.9 Diesel

Km 0 eta enpresa ▶ 115 CV
20.975 € (ik. (3.490.000 PZTA)
PREZIOA **25.195 €** (4.190.000 PZTA)



LR DEFENDER 90 TD5

Enpresan erabilia ▶ 122 CV
23.500 € (ik. (3.910.000 PZTA)
PREZIOA **29.940 €** (4.980.000 PZTA)



VOLVO S60 2.4 Diesel

Km 0 eta enpresa ▶ 130 CV
26.900 € (ik. (4.475.000 PZTA)
PREZIOA **30.100 €** (5.010.000 PZTA)

FINANTZIAKETA BEREZIA 120 HILABETERA • 5 urteko bermea

Eusko Jest

Donostia-Hernani errep. • Tel. 943 33 18 16 • HERNANI (Galarreta pilotalekuaren eta Opel Auto Hernaniren ondoan)
ORDUTEGIA: Asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 19:30era, Larunbatetan 10:00etatik 13:00etara • 04/08/07 arte balio duen eskaintza

AUTOMOBILISMOA ▶



Ezenarrok eta Tobarrek aurrerantzean erabiliko duten auto berria herenegun aurkeztu zuten Orbela tabernaren kanpoaldean. INÍGO ASENSIO

Orain, auto berriarekin

Ezenarrok eta Tobarrek aurtengo denboraldian erabiliko duten Citroën C2 Sport Car berria aurkeztu dute

INÍGO ASENSIO

Herenegun egin zuten Xabier Ezenarrok eta Joseba Tobarrek aurrerantzean erabiliko duten auto berriaren aurkezpena. Aukeratu-tako lekua Tolosako Arostegietako kalea izan zen. Orbela tabernaren kanpoaldea, eta bertara joan zirenek ikusgai izan zuten Citroën C2 Sport Car berria. «Autoa oso ondo dabil bai egonkortasunari eta baita motorrari dagokionez. Hala ere, autoarekin konfiantza gehiago

hartu arte ezingo diogu errendimendu osoa ateratu», azaldu dio Ezenarrok HITZARI. Dituazten helburuez galdetzean, Tobarrek ez zuen zalantzarik izan: «Oso aurrean ibili behar dugu, aurreko postuetan, bestela etxean gelditzea hobe dugu». Aurtun ez da Rally Vasco-Navarro egingo, eta beraien helburu nagusia Citroën C2 Sport Car txapelketan ondo aritzea izango da. «Txapelketa hone-tan marka onen bat lortuz gero, Citroën-eko piloto ofizial bezala aritzeko aukera izango genu-

ke, baina hori oso zaila da; diru asko beharko genuke atzetik. Ametsa da guretzat», zioten tolosarrek.

Aipaturiko lasterketa 22 parte-hartzaileetara mugatu du Citroën-ek eta 6 probek osatuko dute txapelketa: ekainaren 10ean jokatu zen Aviles-eko (Espainia) rallya, Asturiasgo Printzea rallya, irailaren 11 eta 12an jokatu dena, urrian izango diren Llanes eta Montilla Moriles-ko rallyak (Espainia), azaroaren 6an izango den Costa del Sol rallya eta, amaizteko, azaroaren 27ko Madrillo rallya. Lasterketa horien zehaztasunak ezagutzeko web orria prestatu dute, eta nahiz eta amaitua ez dagoen, bisita daiteke jada www.ezenarro.com helbidean. Beraien autoan irakur daitezke Citroën Irovisa, Orbela Taberna, Belkoain, Ezenarro Leihoak, Xoxote Diskoteka, Tovar iturgintza, Larraitz tailerrak eta Fitbak babesleak izanak baina hala ere, Ezenarrok argi azaldu zuen zein zaila den motorraren munduan aritzea. «Babesleak aurkitzea ez da batere erraza, dagoeneko zortzi babesle baditugu, eta izuzgarriko laguntza dira guretzat, baina hala ere geure poltsikotik diru asko jartzen dugu». Honekin elkarrekin arri diren bosgarren urtea da, Seat Ibiza eta Citroën Saxo autoekin bina urte igaro ondoren.

GAU GIRO ▶

Abuztuan ere, musika eta zinema aire librean

Abuztuaren 3an eta 4an 'Pianojolea' eta 'El Jurado' filmak izango dira Amarozen

IRATXE ETXEBESTE

Abuztuan Tolosan geratzen direnak izango dute aukera, astean behin, bederen, gaueko giroaz gozatzeko. Gau Giro programaren baitan filmak eta musika emanaldiak eskainiko dituzte, izan ere, herriko hainbat gunetan. Abuztuaren 3an eta 4an, esaterako, *Pianojolea* (Roman Polanski, 2002) eta *El Jurado* (Gary Fleder, 2003) filmak emango dituzte Amaroz auzoan. Lehena euskaraz izango da, eta bigarrena, berriz, gaztelaniaz. 22:30ean hasiko dira bi saioak.

Abuztuaren 27an Jeshmar taldearen kontzertua izango da, 22:30etik aurrera, Plaza Berrian. Bossa nova musika egiten dute musikariek, musika intimista eta arrunta, betiere ikus-entzuleekin elkarriketa lortzeko helburuarekin. Jazz, bossa, bolero, son... doinuak joko ditu hostoek.

Abuztuaren 28an, berriz, Deboson taldeak egingo du agerraldi Fronton kafetegian. 22:30etik aurrera, musika kubatarra entzuteko aukera izango dute tolosarrek. Hiru dira taldekideek gogoko dituzten erritmoak, eta horien arabera izena jarri zioten orain bederatzirte taldeari: De (dezima), bo (bolero) eta son (Kubari erreferentzia ginez, gaztelarazko sonagatik). Moldaketa bila dabil etengabe talde hori, baina, beti, Kubako oinarriak ahanzi gabe.

Azkena, irailean

Abuztuan bakarrik ez, irailean ere izango da Gau Giroz gozatzeko aukera. Zuri & Beltz taldearen emanaldiak itxiko du aurtun Gau Giro programa irailaren 3an; 23:00etatik aurrera eskainiko du saioa Olatz Pratek eta Bea Hurtadok osatzen duten taldeak, baina Tolosako emanldirako beste bi musikariren laguntza izango dute: Josu Izagirre (kontrabaxuan) eta Hasier Oleaga (bateria) ariko dira haiekin. Jazz doinuak izango dira nagusi.

KIDEAK ▶



▶ Xabier Ezenarro.

Adina. 28 urte.
Nongoa. Tolosarra.
Postua. Pilotoa.
Espientzia. 6 denboraldi Espainia mailako txapelketatan parte hartzen.
Lorpenak. Seat Ibiza Kopako txapelkun 2001ean.



▶ Joseba Tobar.

Adina. 28 urte.
Nongoa. Tolosarra.
Postua. Kopilotoa.
Espientzia. 5 denboraldi Espainia mailako txapelketatan parte hartzen.
Lorpenak. Seat Ibiza Kopako txapelkun 2001ean.

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA

Udalbatzarrek, 2004ko ekainaren 29an egin zuen osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion honako proiektu honi: "T.2 "Santa Luzia" eremuko Arau Subsidiarioen aldatzea. Proiektua, hilabete bat (iragarki honen azken argitaratzea egin eta biharamunetik kontatzen hasita) jendaurrean jarriko egongo da, interesatuak beren interesen aldeko alegazio edo erreklamazioak aurkezteko, Hirigintzako Planeamendu Erregelamenduko 161.1. eta 126 artikuluek eta 1976ko Lurzoru Legearen Testu Baleratuaren 49. eta 40. artikuluek xedaturaren arabera. Iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da. Espedientea, inork aztertu nahi badu, Udaltzeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B) egongo da, alpameneko epean. Alegazio edo erreklamazioak Alkatari zuzenduko behar zaizkio eta Udaltzeko Sarrera Erregistroan aurkeztu.

Tolosan, 2004eko uztailearen 22an
ALKATEA

TOLOSAKO UDALA
IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2004.eko uztailearen 12an erabakiaren bitartez, hasierako onespena eman zion, Garmendia Argaya familiak sustatzen duen IL-5 "Argala" eremuko Plan Partzialari zenbait baldintzarekin. Hirigintza Plangintzako zein kudeaketako tresnak izapidetzeko neurriak zehazten dituen Ekainaren 30ko 17/1994 Legearen 6. artikuluek xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da hamabost egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko.

Iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Berria, Diario Vasco eta Hitza egunkarietan argitaratuko da, eta epea azken argitarapen dataren biharamunetik zenbatuko da. Epe horretan, espedientea jendearantzat agerian egongo da. Udaltzeko Hirigintza Bulegoan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioak egoitza bereko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko dira, Udaleko Alkate-Lehendakari jaunari zuzendurik.

Tolosan, 2004eko uztailearen 26an
ALKATEA

Jokin Bildarratz Sorron

GUTUN@K 

Erraustegiei buruz, Bakartxo Tejeria andereari

2004ko uztailaren 24ko Tolosaldeko HITZAN Villabonako alkateak, beste hainbat hitzen artean, honakoa adierazi du: erraustegiari buruz, eztabaida handienak Tolosan izan zirela, orain pare bat urte, eta Ingurumen zinegotziak esan diola Villabonako inor ez zela agertu.

Orain pare bat urte Villabonako alkate nintzen, eta gure legegaldian bezala, orain ere, ia ohiko bihurtu zaigu erdi gezur edo gezur osoa erabiliz, gu eta gure taldea desakreditatu edo are gehiago, errudun egin nahi gaitu Bakartxo andereak.

Lehenengo erantzun nahi diot esanaz, Villabona, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateko partaide dela eta erraustegiari buruz, mankomunitate horretan erabakia hartu behar zela, eta hartu egin genuen, Tolosaldeko Zabor Mankomunitateak, Foru Aldundiko Hondakin Plana ez zuten onartu, eskatu genuen, gehiago eta hobeto birziklatzea eta konposta egitea birziklatu ezin diren hondakin-ekin esperientzia piloto bat hastea Tolosaldean, Erraustegiari alternatiba aurkitzeko. Mankomunitate horretan, nintzen Villabonako Udaleko ordezkaria eta ez Ingurumen zinegotzia, eta Tolosaldean bilera askotan hitz egin genuen zaborrei buruz, egitan delako arazo handi bat. Baina erraustegia ez da soluzioa, lehenago, beste erabaki asko hartu behar dira, baita ere legistlatu egin behar da, hondakin gutxiago sortzeko. Herritarrek zaborrik gehiena erosi egiten dute eta gero hondakin bezala atera.

Eta bigarren, 2003ko udaberriean, Villabonako EAJ eta EA taldeak, mozioa aurkeztu zuten Foru Aldundiko Planari buruz eta nahiz eta gure taldeak ezezko botoa eman, EAJ eta EA taldearen baiezko botoekin onartu zenuen. Eta azkenik, Villabonako Ingurumen zine-

gotziak berak azaldu dezala non eta nolako eztabaidak egon ziren, eta zergatik hori horrela bada, ez zen azaldu eztabaida horietara, berari bazez gogokion han egotea.

MAIXABEL ARRIETA ▶ AMASA-VILLABONA

Tolosako Zentro Gerontologikoko langileei babesa

Aralar Batzarkide Taldeko ordezkari bat Gerontologikoetako langileek deitua zuten kontzentrazioa hurbildu zen herenegun goizeko 11etan Foru Aldundiaren Jauregiaren aurrean. Modu horretan, Aralar-ek langileekiko elkartasuna adierazi nahi izan du eta, aldi berean, Diputazioaren mende gelditzen diren adinekoen zentroen egoeraz, Eibar eta Tolosaldekoak bereziki, bere kezka adierazi.

Horren erakusle da Aralar Batzarkide Taldeak, Ezker Batura taldearekin batera, aurkeztu genuen agerraldi eskaera, Esther Larrañaga Gizarte Politiketarako Diputatuak Tolosaldeko Gerontologikoaren egoeraz Batzar Nagusietan azalpenak eman dituzan.

Adinekoen menpekotasuna Gipuzkoan izeneko ponentziaren gomendioetan, Batzar Nagusietan ekinaren bukaeran onartu zirenak, zentro berrietarako kudeaketa eta eraikuntza pribatua sustatzeko politika jasota gelditu zen, titularitate publikoko zentroetan nola pribatuetan.

Aralar-ek zerbitzu sozialak diru etekinak lortzeko negozio bezala har daitezen erabateko oposizioa agertzen du, politika neoliberalaren oinarria den merkantilizazioak, zerbitzu sozialetan aplikatuz gero, gure adinekoek jasotzen duten zerbitzuaren kalitatea jaitea dakarrelako. Halaber, politika horrekin, langileen lan baldintzak txartu egiten dira eta horrezkero, kasu askotan behintzat, nahiko txarrak dira eta horrek ere zerbitzuaren kalitatean eragin negatiboa du.

Horregatik guztiagatik, Aralar Batzarkide Taldeak ez zituen babestu aipaturiko ponentziaren gomendioak eta boto partikularra ematea erabaki genuen. Boto partikular horretan bi gauza salatzen genituen bereziki: zentroak pribatizatze asmoak eta langileen lan baldintza duinak ziurtatzeko neurri konkreturik hartu ez izana. Gainera, gogoratu behar da sekorean diharduten gehienak emakumezkoak direla eta ugaritzen ari den baldintzak oso txarrak izatea eragiten duela.

ARALAR BATZARKIDE TALDEA ▶ GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK

Amezketan, gauzak argi eta garbi!

Garan 2004ko uztailaren 29an argitaratutako albisteak, eta HITZAN atzo argitaratutakoak hau idaztera behartu gaitu. Garrantzitsua dena bidezkoa ez dela ulertzeko guk emandako pausoak adieraziko ditugu:

Hautetsi legalek karguak hartu aurretik, guk deialdia eginda, bi bilera egin ziren gaur egun Udalean dauden Txindokipe eta Amezketarrok Elkarlanean taldeekin. Eta hirugarren bilera batera ez ziren agertu hauteskundeak inpugnatu genituelako. Partiduen legea inpugnatu genuen, inpugnatuzioa Aznarren Partiduen Legearen aurka joateko eman beharreko urratsa zen, Estraburgoko Auzitegiari lege-justizia eskatzeko prozesuan —orduan bi taldeek esan zuten haiek ilegalizatzea zela gure helburua, eta biek zekiten hori ezinezkoa zela—.

Kargu hartzea iritsi zen gero, eta bezperetan Txindokipek idatzizko eskaintza egin zigan, botoen arabera zinegotzi barrak zegokiela eta zinegotzi bat uzteko prest zeudela esanez. Eta gure erantzun konkretua hau izan zen: 'Asko esker-tzen dugu zuen partetik zinegotzi kargua eskaintzea. Hau-

teskunde hauek herrian sortu duten nahastea konpontzen hasteko keinu polita da. Hala ere, iruditzen zaigu, batetik eskaintza behar bezala baloratzeko denborarik ez dagoela gaurtik biharrera. Bestetik, datozen lau urteetarako herrirako planteamendu orokorra egin beharra dagoela bihar udaletxean sartuko diren bi taldeak eta ordezkariarik gabe geratu diren amezketar guztien artean. Eta horretan hasteko Amezta taldea prest dago'.

Honela bada, Amezketako Udala eratu zen, bai Amezketarrok Elkarlaneanek eta baita Txindokipek ere Espainiako legearen arabera zegozkien zinegotzi guztiak hartuz. Udalaren erantzunaren zain sei hilabetez egin, eta Udalaren funtzionamenduari buruzko proposamena luzatu, eta ahoz hitzordua eskatu zitzaizen bi taldeei guk Amezketako Udalean parte hartzeko proposamena lantzeko.

Proposamenari ez ziotela erantzuten eta Udal legalak ezer pasatu ez balitz bezala funtzionatzen zuela ikusita, idatziz, bi taldeei eta osoko bilkuran sartzeko asmoz, Amezta taldeak proposamen hau egin zuen:

- Hauteskudetako emaitzak aztertu, eta herrian edozein erabaki hartzeko bi taldeen adostasuna beharrezko izango denez, hiru taldeen artean akordioa lortu eta organo es-traofizial bat eratzea proposatzen dugu. Organu es-traofizial honetan erabakiak hiru taldeek adostu, eta udalbatzarretan ofizialki aurrera aterako lirateke erabakiak.

Proposamen hau eskutan izan eta hori lortzeko ezer egin ez arren, Aralar-ek komunikabideetan egindako adierazpenean Amezketako kasua adibide bezala jarri zuenean, Txindokipek Garan Aralar-i erantzuna eman zion uztailaren 29an.

1. Amezta taldearen bozeramaile bihurtu dela esan diote Aralar-i. Amezta taldeak ez du bozeramailek behar, talde

independentea da eta Amezta bera da bere bozeramaile bakarra.

2. Txindokipek ahaleginak egin omen ditu Amezta taldeak Udalean zegoen ordezkariak lortzeko, baina ordezkari osoa lortzea posible egingo duen proposamena luzatu du beti Amezta taldeak, gure posibilitate erreala aztertuta eta lege bidetik aparte proposamen posible bat. Eta hau ulertzen dugu guk erantzun konkretu bezala eta bideak irekitzen dituen zerbitzu bezala, Garan honi buruz erantzunik jaso ez dutela dioten arren.

3. Txindokipe Taldearen babesa eta emaitzen errespetua hasieratik jaso omen dugu. (Hasieran, hauteskundeetan gehiengo lortu zuten boto zuriak dudari jarri zituzten, ez omen gintuzten ordezkatzeko, nulloak izan balira ezberdina izango omen zen). Ez zaigu guri babes hori iritsi, udaleko funtzionamenduan erabakia ukatu zaigun momentutik eta beste bi taldeek bakarrik erabaki duten momentutik.

Argi dago, Garan argitaratutako idatzia eta Hrrzan uztailaren 30ean idatzitakoarekin, dena hitzetan geratu zaiela Txindokipe taldekoei. Guk ere ekintzak epaitzen ditugu eta ez hitzak.

Hain zaila al da beste herrietarako eskatzen duzuen herrian betetzen saiatzea eta betetzen laguntzea? Orain artean, gorroto duzuen Espainiako legalitateari lotuagoak zaude amezketarren borondateari baino. Udalean zaudeten bi taldeek, biek, hirugarrenari lekuri egiten ez badiozue, amezketar askori bizkarra ematen ari zarete. Bada garaia herriko kontuak herrian konpontzeko. Eta hori denon ardura da, udal-letxe postu eta legebideak alde batera utzita, —ezaguna da gaur egungo egoera— gure proposamen irekieran inguruen herriaren borondateari erantzuna emango dion herri akordio bat landu beharko dugu. Zuek eta guk. Zenbat eta lehenago, hobe.

AMEZTAK TALDEA ▶ AMEZKETA

www.tolosaldeko hitza.info

▶ sar zaitez eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak, argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

webgunera bisitak:



ALBIZTUR-AMEZKETA ▶ JAIK

Ekitaldi ugari bigarren hamabostaldian

Albizturren egingo den zikirorako txartelak salgai izango dira asteleheneetik aurrera

OLAIA ESKITXABEL

Albizturren abuztuaren 13an hasiko dituzte Jasokundeko Ama Birjinaren omenezko jaiak; egun horretan zikiro-jatea egingo dute. Txartelak astelehenean, abuztuaren 1ean, jarriko dituzte salgai herriko

tabernetan. Abuztuaren 4ean, herriko jaien inguruko bilera egingo dute 21:00etan Kultur Etxean.

Amezketan Elbiaren jaitsierarekin hasiko dira jaiak abuztuaren 23an. Herritar guztiengatik ekitaldiak izango dira bost egunetan zehar.

EGITARAU ▶

ALBIZTUR

Abuztuak 13.

19:30. Jaien hasiera: kanpaiak, suziriak...

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Etxabe anaiak.

Abuztuak 14.

16:00. Ume jolasak.

20:30. Meza eta Agur

Erregina agintariekin.

22:00. Pilota partidak.

Ondoren. Arandia anaiak.

Abuztuak 15.

09:00. Txistulariekin kalejira.

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako

herrikoia eta pilota partidak.

18:30. Herri kirolak

Landatarrek alaituta.

Ondoren. Bertsolarien saioa.

23:00. Laja eta Mikel

trikitilariarekin erromeria.

Tartean. Basurde

harrapaketa.

Abuztuak 16.

12:00. Toka herrikoia.

19:30. Sagardo eta tortila

txapelketa.

23:00. Elustondo anai-

arrebak.

AMEZKETA

Abuztuak 23.

18:00. Kalejira txistulari eta

buruhandiekin.

20:45. Ikurriñari agurra eta

Elbiaren jaitsiera.

21:00. Zahagi ardoa.

23:30. Epelde eta Larrañaga.

Abuztuak 24.

09:00. Dultzaineroekin

kalejira.

11:00. Meza nagusia eta

hamaiketakoa.

13:00. Herri kirolak.

18:30. Dantza taldeak.

Apustua. Latu eta Juan Miel.

23:00. Nekin musika taldea.

Abuztuak 25.

12:00. Pilota partidak.

16:00. Haur jolasak eta

merienda.

19:00. Kiki eta Koko

pailazoak.

23:00. Triki ta ke musika

taldea.

Abuztuak 28.

18:00. Artzai txakur

lehiaketa.

20:30. Sagardo dastaketa.

23:30. Abiba DJ-arekin.

Abuztuak 29.

11:00. Meza nagusia.

12:30. Herri kirolak.

17:30. Pilota partidak.

Ondoren. Jexuxen Jazpana

giroa alaitzeko.

23:00. Akelarre taldea.

02:00. Elbiaren jaitsiera

hurrengo urtera arte.

VILLABONA ▶ JAIK



Billabonatar ugari bildu zen atzo Etxe-Ondon, koadrilen arteko bazkaria zela eta. G. AZKUE

Gaurko egitaraua beteta bukatuko dira Villabonako Santioak

Atzo koadrilen arteko bazkaria izan zuten billabonatarrek Etxe-Ondon; gauean bertsoak entzuteko aukera izan zen

GARAZI AZKUE

Gaur izango da festetako azken eguna Villabonan. Zortzi egun luzeren ondoren, hurrengo urtera arte agur esateko tenorea iritsi da. Baina oraindik gaurko eguna dute aurretik herritarrek.

Atzo, berriz, billabonatar ugari bildu ziren Etxe-Ondon, koadrilen arteko bazkaria izan baitzen urtero moduan. Eguraldi ederra egokitu zitzairen gainera.

EGITARAU ▶ GAUR

09:00. Kalejira Villabonako

Santio txistulari taldearekin.

11:00-14:00. Rompecabezas

eta Pabxin-Potxin Arroan.

11:00. Hazparne-Villabona

errebote partida plazan.

17:30. Erraldoi eta

buruhandien irteera.

18:00. Herri kirolak Arroan:

Villabona eta Belauntza.

23:00. Rock kontzertua

plazan: Agaotz eta SA.



DJ jaia Otsabiko parkean

JAIK ▶ Jende ugari bildu zen herenegun Otsabin, festen baitan antolatutako DJ Jaian. Besteak beste, Nko Independent -irudian eta Haritz Goikoetxea aritu ziren musika jartzen. G. AZKUE

ARANDRA HARATEGIA

Jai zoriontsuak!
Kale Berria, 13 • Billabona
Tel.: 943 69 08 03

Talleres **denonak**

ondo pasa jaietan!

Madril-Irun errep. 444. km • Billabona
Tel.: 943 69 13 39 / Faxa: 943 69 41 39

OKINDEGIA kixubi

Festak ondo pasa!

Gozotegia eta kafetegia

Enllobea, 3. 20150 BILLABONA. © 943 69 33 75

ARTEKARITZA • ASESORANTZA

IRAOLA

BERRIA, 58
20150 Villabona
Tel.: 943 69 27 63
Faxa: 943 69 27 74

SARASOLA ZUBELDIA

Elkarlanean, s.l.

Musika eta herenegun elektronikoa

altxa besoak eta ekin dantzari!

Tel. 943 69 19 75
Mag. 691-64 08 67

Kale Berria, 11
VILLABONA

ORENDAIN ▶ GIZARTEA

Eltxo elkartean bazkaltzen amaitu zuten udaleku irekietako azken eguna

Hiru eta hamasei urte bitarteko hama zazpi lagunek eman dute izena

O.ESKITXABEL

Atzo izan zen udaleku irekietako azken eguna. Bi taldetan banatuta ginkana egin ondoren, urez betetako puxikekin freskatzeko aukera izan zuten. Udaleku irekiei amaiera emateko Eltxo elkartean bazkaltzen zuten begiraleek eta haur eta gaztetxoek.

Hamazazpi lagunek hartu dute parte udaleku irekietan; hiru eta bederatzita bitarteko haurrak astelehen, asteazken eta ostiraletan bildu dira, hamar eta hamasei urte bitartekoak, berriz, astearte, ostegun eta ostiraletan. Hiru begirale aritu dira lanean.

Ostiraletan, irteerak egin dituztela azaldu dute begiraleek; Zizurkilengain ibiltzen, Donostiako Aquariuma bisitatzen, Nafarroan dagoen Senda Viva parkean... izan dira.



Jolas desberdinak egin zituzten atzoko ginkanean. O.ESKITXABEL

Jarduerak prestatu aurretik, gaztetxoek proposamenak ere jaso zituzten begiraleek: «Kirol ekintzak izan dira gehien eskatu dituztenak», zehaztu dute begiraleek.

Helduek «Zizurkilengain ibiltzeko eguna» azpimarratu dute; txikienei, berriz, «kamisetak margotzea, murala egitea eta Aquariumeko bisita» gustatu zaizkie gehien.

ALTZO ▶ JAIK

Jende ugari, herriko jaien ongiatorrian

Gaur, erlojupeko txirindulari proba izango da; gauean, kontzertuak



Haurrek oso ondo pasatu zuten jaien lehenengo egunean. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Urtero bezala, herriko udaltzainak bota zuen suziria; jendea horren zain zegoen plazan. Ondoren, bonba japoniarrak eta buruhandiak haurren arteko giroa berotu zuten.

Helduak, mahai inguruan zikiroa jateko bildu ziren; 200 lagun inguru eseri ziren.

Gaur, erlojupeko txirindulari proba burutuko da; arratsaldean, berriz, herriko dantza taldearen saioaren ondoren, herri kirolen tarte izango da. Gauean, Kauta eta Kaotiko talde ezagunek kontzertua eskainiko dute.

Datozen hiru egunetan, ondo pasatzeko aitzakiarik ez zaie faltako altzotarrei;

ALTZO ▶ GIZARTEA

Herenegun aurkeztu zuten iazko urtekaria etxe guztietan banatuko dute

Gai desberdinak jorratzen dira 72 orrialdez osatutako liburuxkan

O.ESKITXABEL

Orain dela zazpi urte kaleratu zen Altzoko lehenengo urtekaria; aurtengoak, 72 orrialde ditu eta gai desberdinak jorratzen dira bertan: etorkizunaren inguruko gaiak (*Emakumea, baserriaren segida* deritzon artikulua esaterako), Altxo eta garapen jasangarriaren inguruko gogoeta, herriaren muge-

tatik haratago eman ziren afe-rak (*Euskaldunon Egunkariaren* itxiera...) historialaren kolaborazioak...

Ondarea eta txokoak lehiketa ere agertzen da urtekarian. Bertan, Altzori buruzko hamabi galdera agertzen dira; erantzunak udaltxearen aurkeztu beharko dira. Bilintx liburudendan 75 euroko balioko bi txartel zozketatuko dira asmatzen dutenen artean.

15:30. Artea herriko dantza taldearen emanaldia.
18:30. Herri kirolak: Arrospide eta Azurmendi aikolariak eta Ostolaza harrijasotzailea.
00:00. Kauta eta Kaotiko taldeen kontzertua.
Ondoren. Trikitzio musika taldearen emanaldia goizaldera arte.



Urtekariko aleak banatu ziren aurkezpenaren ondoren. O.ESKITXABEL

EGITARAUA ▶

GAUR

09:00. Goiz eresia.
10:00. Meza nagusia.
Ondoren. Hamaiketako herriko adinekoentzat.
11:30. Erlojuaren aurka afizionatu mailako txirindularien XIII. Altzoko lgoera.

ELBARRITUEN AULKIETARAKO GURPILAK
ETA BERE OSAGAIK

IRASI, s.a.l

Tel.: 943 67 29 89
943 67 61 76
Faxa: 943 67 58 30
E-maila: irasi@sayma.es

TOLOSA • P.K. 84
Txarama-Altxo Industrigunea, 5

**Aroztegia
TXARAMA, S.L.**

Nikasio Arana
San Inazio festa
zoriontsuak opa dizkizuegu!

Txarama auzoa, zif. • ALTZO
Tel eta faxa (tailerra): 943 67 24 29
mug.: 676 99 78 77

Grupo Calciner

Calciner, S.A.
Calera de Alzo, S.L.
Cantera de Alzo, S.A.
Morteros Calhido, S.L.
Canteras de Tolosa, S.A.

- KARE HAREAK
- DOLOMIA HAREAK
- KARE BIZIA ETA UREZTATUA
- HORMIGOIAK

- IGELTSERITZAKO MASAK
- DOLOMIA KALTZINATUA
- DOLOMIA SINTERIZATUA

Egileor auzoa, 101
20268 Altxo
Tel. 943 653243
Faxa: 943 654895

E-maila: calciner@calciner.com
Web orria: <http://www.calciner.com>

ARANDIA

JATETXEA

Ono pasa
Altzoko Jailetan!

Tel. 943 65 22 62 ALTZO

GAZTELU ▶

Abuztuaren
14ean hasiko
dira herriko
festak

Herriko bi bikoteren lehia izango da aizkoran; Ibarra neskak, sokatiran

D. GIBELALDE

Andramari jaiak abuztuaren 14ean eta 15ean izango dira Gaztelun, eta egitaraua zehaztu dute dagoeneko. Besteak beste, abuztuaren 15ean, herriko bi bikoteren arteko lehia izango da aizkoran; kanako enbor bat ebaki beharko du bikote bakoitzak. Ondoren, sokatiran ariko dira Ibarra neskak.

IBARRA ▶ SAN BARTOLOME JAIAK

Jaiak, abuzturako prest

Abuztuaren 20etik hasitak, sei eguneko festa izango dute herritarrek



Danborradaren 25. urtemuga izango da aurten. Argazkian, iaz ateratako kide batzuk. IBARRAKO UDAL ARTXIBOEA

ko, zikiro jaterako, txartelak jarriko dituzte salgai abuztuaren 5ean. Sendi Ekintzan izango dira eskura, 20:00etan, 21 euroren truke. Koadrilek menua erabakita dute, denen artean adostuta. Egun horretan txartelak erosten ez dituztenek 30 euro ordaindu beharko dute. Era berean, erositako txartelak ezingo dira itzuli; ez da dirurik bueltatuko.

Festa herrikoa

Aurten, egiaz Ibarra gertatutako aspaldiko pasadizo bat gogora ekarri nahi izan dute Hauspoakoek. Ezkontza bat irudikatuko dute, ibartar eta italiar baten arteko ezkontza, hain zuzen. Edo hobeto esanda, ezkontza baten aurretikoak. Garai hartako egoera gogora ekartzeko, jantziak, tresnak, baliabideak... xehetasunik txikiak ere aintzat hartu dituzte. Gizonezkoek mahoizko galtzak, alkandora zuria, apretak eta txapela jantziko dituzte, eta emakumezkoek gona, alkandara, apretak, zapia eta buruko eramango dituzte soinean. Garaia ezagutzuz, ahalik eta gehien kontextualizatzen saiatuko dira.

DANI GIBELALDE

Ibarra San Bartolome jaiak abuztuaren 20ean emango zaie hasiera. Herriko talde eta elkarteek lan handia egin dute —eta oraindik ere ari dira azken ukituak ematen— sanbartolomeetako egitaraua prestatzeko, eta Festa Batzordekoek ondo pasatzeko gonbitea luzatu diete herritarrei.

Besteak beste, aipagarria da aurten danborradaren 25. ur-

temuga; txupinazoaren ardura ere Danborradak izango du, ahobatez hala erabaki baitu Festa Batzordeak. Julian Urrestarazu danborren zuzendaria eta Mila Garcia de Iturriospe barrilen zuzendaria izango dira, hain zuzen, aurten txupinazo jaurtiko dutenak. Abuztuan zehar, gainera, danborradaren 25 urteetan bildutako argazkien erakusketa bat ipini dute herriko kaleetan, giroa alaitzen joateko. Abuztuaren

18an, eta 19an egingo dituzte azken entseguak danborrada taldekoek. Haurrek 20:00etan egingo dituzte, eta helduek berriaz, 21:00etan. Danborrada taldeak gogorarazi nahi du danborradan atera ahal izateko bi entsegutan parte hartzea ezinbesteko baldintza dela.

Koadrila Eguna

Sanbartolomeetako Koadrilen Egunean egiten den bazkarira-

EGITARAUA ▶

ABUZTUAK 14

11:00. Suziriak, buruhandiak eta gaztelu puzgarria.
16:00. Gaztelu puzgarria.
18:00. Haur jolas eta jokoak.
21:00. Herri afaria ostuan.
23:30. Aztarna taldearekin dantzaldia goizalderarte.

ABUZTUAK 15

09:30. Kalejira herriko txistulariekin.
10:30. Meza nagusia. Ondoren, hamaiketako elkarteak.
12:30. Pilota partidua: Zubiria-Txapartegi / Altuna-Irureta. Ondoren, toka herrikoa.
18:30. Herri kirolak: herriko bi bikoteren arteko desafioa aizkoran kanako enborra ebakitzen. Martin Etxebarria eta Joxe Maritxalar, Mikel Matxinandiarena eta Patxi Mujikaren aurka.
Ondoren. Sokatira Ibarra neskak taldeekin.
19:30. Ardi txakur erakusketa.
Ondoren. Saioa Lourdes eta Alabier tritilariekin erromeria gorpuztak irauten duen arte.

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Brotxe galera. Brotxe bat galdu zen uztailearen 24ean, Anoetako elizan. Tlf: 943-21 75 07 (09:00etatik 20:00etara).
Etxekoa: 943-65 36 08.

EGITARAUA ▶ SAN BARTOLOMEAK

ABUZTUAK 20 (OSTIRALA)

21:00. Aferia; *Euskal presoak Euskal Herrira*, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 21 (LARUNBATA)

11:30. Ibarra Merkatarien Elkarteak eskainitako sagardo, ardo eta pintxo dastaketa, San Bartolome plazan.
11:45. Haurren eta gazteboen koadrillak plazan elkartuko dira.
12:00. Jaiak hasiera; suziri jaurtikea eta erraldioen eta buruhandien irteera. Koadrilen kalejira Giroarte taldearekin eta txarangarekin batera.
14:30. Haurren eta gazteboen koadrillak plazan.
16:00. Poxpolo, Mokolo eta Konpainia pailazoak.
18:00. Kroketa Soparen dantzaldia izango da plazan gazteboentzat eta haurrentzat.
22:30. Danborrada Nagusia Ori txarangak alaituta.
23:30. Imuntzo eta Beloki.

ABUZTUAK 22 (IGANDEA)

09:00. Diana.

09:30. Jubenil mailako txirridulari proba: XXIII. San Bartolome Saria.

11:00. Gorriti eta bere animaliak, Beko-Biden.

11:30. Jubilatuen hamaiketako Bizi-Nahi elkarteak.

13:00. Herri kirolen erakustaldia, San Bartolome plazan.

16:00. II. Eskalada Txapelketa, Belabieta udal kiroldegian.

17:00. Pilota partidua Belabietako frontoian. Jubenilak: Elurbe-Mendizabal / San Juan-Beloki; afizionatuak: Ariz-Mintegi / Baez anaiak.

19:00. Sokatira San Bartolome plazan: Izaskun, Hauspoa-Ibarra, Ibarra Gazteak eta Belauntza taldeak.

22:30. Alurr Dantza Taldearen jaialdia, Emeterio Arrese parkean.

00:00. Laiotz taldearen eskutik dantzaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 23 (ASTELEHENA)

09:00. Diana.

11:30. Toka eta Bolo Txapelketa, Emeterio Arrese parkean.

11:30. Festa herrikoa herriko kaleetatik zehar.

14:30. Txekor jatea, Uzturpe ikastolan.

16:00. Haur jolasak, baserriko jolasak, San Bartolome plazan.
19:00. Salbea eta kanpaiak jotzea San Bartolome bezpera dela eta.

19:30. Sokadantza, San Bartolome plazan.
23:30. Akelarre taldearen eskutik, dantzaldia San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 24 (ASTEARTEA)

09:00. Diana.
10:30. Meza nagusia San Bartolome parrokian.
11:30. Koxkola txarangak alaituta, haurren danborrada.

12:00. Piperrak eta tomateak San Bartolome plazan, herriko baratzainek, Zubeltzu piperra etxeak eta piperra kooperatibak zerbitzatuta.

16:00. Haur jolasak, Emeterio Arrese parkean.
18:30. Helduen Dantza Solte

Txapelketa, San Bartolome plazan.

20:15. Bertsolariak Emeterio Arrese parkean: Andoni Egaña, Sustrai Kolina, Aitor Mendilluze, eta Amaia Agirre izango dira bertan.

23:30. Izotz taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 25 (ASTEAZKENA)

09:00. Diana.
11:30. Koadrillak plazan elkartuko dira.
12:00. Koadrilen kalejira Ori eta Koxkola txarangak eta Giroarte dultzaineroek alaituta.
14:30. Koadrilen zikiro jatea, Uzturpe ikastolan.

19:00. Patxi Perez eta Batbiru taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

00:00. Osasun Etxetik San Bartolome plazaraino piperra erretzeko prozesioa egingo da eta ondoren piperra erreko da plazan.

01:00. Patxi Perez eta Batbiru taldearekin dantzaldia San Bartolome plazan.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Urko Arozenak bixtu eta marinba errezitala eskainiko du. J. ASTIBIA

Arozenak kontzertua eskainiko du

Txistua eta marinba, Maxurrenea herrintzat ekimenarekin bat, bihar

JAIONE ASTIBIA

Bihar igandea, 12:00etan, Urko Arozenak kontzertua eskainiko du, udaletxeko batzar aretoan, Maxurrenea herrintzat ekimena urte osoan antolatzen ari den ekitaldien baitan.

Kasu honetan, Arozenak, txistua eta marinba aukeratu ditu emanaldirako. «Biak herri instrumentuak dira jatorriz, eta gero, teknikak hobetu ahal, musika klasikoan sartu direnak», azaldu dio HITZARI. Txistua, Euskal Herriko musika tresna nazionala den moduan, marinba Guatemalako omen dela ere, argitu du.

Txistu eta perkusioa Goi Mailako Ikasketak eginak dituen eta bere sorterrira den Oartzun aldean ez ezik, inguru hauetako guztietako taldeetan aritua edota ezagun den musikari honek, bereziki («txistua-erentzat eta marinbarentzat propio idatzitako obra klasikoak») aukeratu ditu, XIX. eta XX.

mendeetakoak zehazki. Bere hitzetan, «kontzertua entzungarria izanen da, oso. Obrak ere ezagun samarrenak izatea erabaki» baitzuen hasieratik, zionez.

Ziur, ikusgarri ere izanen dela, auspoz eta lau makilaz, doinuak sortzen ikustea.

ERREPERTORIOA ▶

Marinba eta bixtua txandatur.

'Meditacion und dance'. David Steinquest.

'Aguraingoa'. Jose Inazio Ansorena.

'Preludioa sol menorrean'. Juan Sebastian Bach.

'Ten lidle minutes'. Sabin Bikandi.

'Preludioa mi menorrean'. Ney Rosaur.

'Artzai Kantak'. Eusebio Basurco.

'Resthles'. Rich O' Meara.

LEITZA ▶

Festetan urtero jubilatuek egiten duten bazkaria

Leitzako Jubilatuek Elkarteak, jada salgai jarri ditu santiburtzio bezperan egin ohi duten bazkari horretarako txartelak, 7 euroren truke eta jubilatuen tabernan bertan. Herriko jubilatuek guztiei dei egiten die eta txartel hauek hilaren 7a baino lehen hartu behar dirala oroitarazi. Menua jakin nahi izanez gero, horratz: zizka-mizka hotz eta beroak, legatza erromatar erara, azpizaina guarnizioarekin, tarta eta izozkia. Txanpaina, kafea eta kopa «normalak» banatuko omen dira. Bazkaria Oialden izanen da.

GIZARTEA ▶

Karrape Irratia abuztuaren 16 eta 17an itxita

Leitzako, nahiz Aresoko entzuleek ez dute Karrape Irratiaren ahotsik entzuten hilaren 16 eta 17an, bi egun horietan jai hartuko baitute bertako langileek. Leitzako festetan, normalean itxita egoten da, baina irratsaio bereziak eskaini behar dituzte, plazako zenbait ekitaldi zuzenean emitituz. Beraz, egun horien ordainetan, ondoren hartuko dute jai.

LEITZA ▶

Zilarrezko ezteiak dituztela ospatuko dute

Abuztuaren 15a, Leitzako festetako ezkondu eta bikoteen eguna denaz baliatuz, 1979. urtean ezkonduakoei deialdia egin zaie ohar baten bidez, Leitzan bizi edota ezkondu zirenei. Aurten zilarrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei eguna elkarrekin egiteko deia egin da: 13:15ean meza, eta poteoaren ondoren, Basa Kabira bazkaltzera. Hala, 8a baino lehen deitu behar da bertara.

LEITZA ▶ POLITIKA

Autodeterminazioaren defentsan ohiko bilkura

«Erabakia gurea da; herriari galdetu» leloa izanik, manifestazioa egingen da 10ean

J. ASTIBIA

Abuztuaren 10ean, festa bezpera, ohikoa den manifestazioa burutuko da Leitzako kaleetan barrena, arratsaldean txupinazoa baino lehen, zehazki 17:00etan. Autodeterminazioaren aldarrikapena eginez, «Erabakia gurea da; herriari galdetu» lelopean, egingen ere, jakin izan denez.

Bertara joateko deialdia, Leitzako Larrain Herri Plataforma eta Eusko Alkartasunak egingen

dute printzipioz. Aralar taldeak hartu duen azken erabakiaren berririk ez zegoen, ordea, erredakzioa ixterakoan. Dirudienez, manifestazioari «atxikimena eman», emanen dio.

Manifestazioak ohiko ibilbidea egingen du herriko plazatik aterata. Bukaeran, berriz ere hasierako puntuan bilduta, idatzi bat irakurriko dute deitzaileek. Ekitaldia egin ahal izateko beharrezko komunikazioa egin da goela eman dute aditzera, bide batez.

FESTAK ▶

Txupinazoak zeinek eta noiz bota erabakita dago

Leitzakoa Kultur Taldeak botatzekoa omen da eta Aresokoa berriz, aurreratu egingen da



Kultur Taldeak —irudian kide batzuk— botako omen du suziria. J. ASTIBIA

J. ASTIBIA

Leitzako santiburtzioei hasiera emanen dien suziria, txupinazoa, badirudi, Leitzako Kultur Taldeak botako duela, beti ere, atzo ostirala, Karrape Irratian festan inguruan izan zen irratsaioan aditzera eman zenaren arabera.

Txupinazoa, herrian lanean aritzen diren taldeek bizteko

martxa iaz hasi zen, Aurrera Kirol Elkartearekin, eta aurten, Kultur Taldeari egokituko omen zaio egin behar hori. Talde honek 26 urte daramatza herriko kultur mugimenduan lanean.

Areson, berriz, aurten hasierako suziria 12:00etan biztuko dute (18:00etan egin ohi zen), gazteak baserrietara eskera ere orduan joaten baitira.

HITZA, eskualdeko plaza
Milaka aleko tirada egunero; etxera banatuta

661 678 818
Toki aproposa iragartzeko

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko uztailaren 31, larunbata ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzolaeta, Aduna, Albotzur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzola, Anboda, Barriaren, Berastegi, Etxauri, Herrialde, Ibaeta, Iruia, Lantzi, Leizorri, Lizarra, Orestain, Orreaga, Tolosa, Villabona, Zuzuri

Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurkitza.
Kultura Saila



GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

28

hotzena

19

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943 30 43 46

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko ezteiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Oier Goikoetxea (Alegia).
Abuztuaren 13an 3 urte.
Zorionak familiaren partetik,
bereziki Alexen partetik.



Zorionak, Zapi. Hirekin gaude; aupa bartolok.



URTE ASKOAN

Lorena Merino Lobo (Tolosa).
Abuztuaren 3an 12 urte.
Zorionak ebekoen partetik.



Iñigo Zapirain.

Urrun egon behar luketenak gertu. Gertu egon behar luketenak urrun. Noiz arte, bihotza? Ibarongo zaituztegu besoak zabalik. Zorionak, Iñigo, zure urtebetetze egunean. Jarraitu irribarre alai horrekin. Etekoak.



URTE ASKOAN

Ioane Alberdi (Berrobi). Abuztuaren 16an 16 urte beteiko ditu. Ea argazki honetan bezain irriartsu noiz ikusten zaitugun.



Oscar Zelarain. Euskal presoak ebera. Zorionak, Oskar. Alegiako lagunak!



Gure haritz eta pagoak harrotzen dituen askatasun haizea amastu, eta erraiak ere lehertuko dizkien irrintzia botako dugu. Jo ta ke, borroak merezi duelako! Beti zaitut gogoan.



ZORIONAK

Urko, Alain eta Unax Odriozola Irastorza Otamendi Altutza. Gora San... ta Dolore!
Hori da sasoi amona!

AGURRAK ▶



Pintor Lekuona, 2 - TOLOSA © 943 65 24 30

honetekin
honetekin_cel@tolosa.com

Astelehena: 15:00 / 20:00
Asteartetik - Ostegunera:
9:00 / 13:00
15:00 / 20:00
Ostirala: 9:00 / 20:00
Larunbata: 8:00 / 13:00

'ABUZTUAREN 9-tik 15era ITXITA'
ILEA HARTZERIK NAHI EZ BADUZU
ZATOZ GUREGANA